

ARTUR CAMPION



Berrogei eta amar urtez lanean eten gabe aritu ondotik, euskera-ren eta Euskal-herri-aren alde, ainbeste liburu eder izkiriatu ondoan, azkenean il zitzaigun Iruñe-an, ixilean, iñor ohartu gabe kuasik, 1937-garren urtean, Agorraren 18 garrenean.

Iri orretan berean sortu zan 1854 urtean, Mayatza-ren 7 garrenean. Jaidura suharreko gizona, adimen zorrotz-ekoa eta biotz aundikoa, denetaz ezaguna da gure idazlari eta jakintsu aundia.

Euskera-tzaz egin zituen lan zenbaiten izenak bakarrik aipatuko ditugu emen, literato eta Historia-egille bezala bere lan eder eta aipatuak, aldi unetan ixildu bear ditugularik.

Bere leenbizikoa, euskera ikasi zuen-etik 6 urte geroago-koa, *Gramática de los 4 dialectos vascos*, aipu zabaleko liburuia izan zen: oraindik ere, bere balioa galdu gabe, leeneko errunka bera atxikitzen duena.

ORREAGA deritzaiona, euskera mota geyenetan emanikako, Ibañetako gataska zaarraren ipuiña. *Celtas, Iberos, vascos*, darraiona, gero: ats-aundiko lana, euskera eta euskal jatorritasun eta iturburua errotik ikertzen duena; sanskrit, kopto, zelta, aquitan, greko eta beste alako izkuntza itzalien laguntzarekin bururatua.

Eta euskaltasun izpi bat zuketen elkargo eta Bilkura guztietan gogo ta bihotz sartua, asi Iruñe'ko *Asociación Eus-*

kara aspaldiko artatik 1870-urtean eta gero jarraikiz Euskal Esnalean, Eusko Ikaskuntzan (denetan buruzagi izana) eta bereziki gure Euskaltzaindian, asiera ber-beratik, beti lagun-kide eta lan-kide jarraikia.

Aipagarri da, naiz ez garen orain behar bada tilet-ez tilet orotan akort, Broussain Hazparne-ko alkate bioztun arekin batera egin eta argitaratu zuen Literatur-euskera bakar orrekilako irakurgai mamitsua.

Bere *Euskarianas* ospatsuekin, erdaraz ere agertu da novela-egille eta idazlari eder, bizi, zorrotz eta kilikagarria: literato bezala artista-pintore zen, so-egille zeatza.

Baiñan Campion bizirik ezagutu dugunendako oroitzapen biziena eta biotz unkigarriena zaigu, adiskideen arteko usatzen zuen mintzo beroa eta barnakorra, jakituri edatue-nez ornitua, eta abots arraillatu iduri arretan deblauki botatzen zituen ateraldi gordiñ (nafarra zen) arteza eta gotor ayen oroitzapen ezin ahantzizkoa.

Humanista zen gure gizona, gizatasuna zarion lau bazterretatik. Ainbeste maite zuen sorterrria, zorretan dago oraiño bere ospe aundiko semeare-kin.

A. YRIGARAI

